



# Pil-pilean

TURKIOA

Soraluzeko hilabetekaria  
2024ko apirila - 409 alea



HILETA

ALDATUZ DOAN

ERRITUA



# PIL-PILEAN 409

2024ko apirila

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

## Aurkibidea

- |    |  |   |
|----|--|---|
| 4  | <b>Elkarrizketa</b> Iñigo Perez-Arregi De Codes (BPTD)           | IRITZIA   |
| 6  | <b>Begira</b> KontrargiAK erakusketa                             | 3 <b>Neuretik</b> Arrate Gisasola <i>Zero patatero</i>                    |
| 8  | <b>Zer berri</b> Aktualitateko albisteak                         | 16 <b>Gutunak</b> Iker Aldazabal <i>Gabolatseko zubi berria</i>           |
| 14 | <b>Argazki bidez</b> Zirkua                                      | 16 <b>Komiki tira</b>   |
| 18 | <b>Erreportajea</b> Azken agurra emateko ohitura berriak         | 17 <b>Hausnarketa</b> Zelan egin izan dituzue eta egingo dituzue hiletak? |
| 24 | <b>Kirola</b> Soralezuko Pilota Elkartea                         | 17 <b>Puntua</b> Gaizka Azkarate Uzin <i>Txilborretik at!</i>             |
| 26 | <b>Nondik nora</b> Lore Gallastegi Tornos                        |   |
| 30 | <b>Zerbitzuak</b> Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... |   |



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi

**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**

**GOKI**  
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko  
UDALA**

# Zero patatero



ARRATE GISASOLA

**H**itzaldi, ikuskizun edo bestelako ekimenetan, parte-hartzaile kopurua kontatzeko ohiturarik bai? Eta genero ikuspegia kontuan hartuta?

Datu bilketa eta interpretazio prozesuak martxan daude une oro, big-data. Bateko eta besteko datuak batzen dira, masiboki. Gure portaerak eta errealitateen azterketak egiten dira horiekin. Guk ezin neurtutako neurrietaraino. Eta datuok baliatzen dira estrategiak zehazteko.

Datu bilketa masibo gabe errealitatearen interpretazioak egin daitezke. Adibidez, genero ikuspegiari lotuta; x emakume, x gizonezko. Baina datuak, datu huts dira horietan begirada jarri eta ezer egin ezean.

Aurreko astean, adibidez, Elgoibarko EME egunaren harira, prentsan ikusi nuen orain dela bi urteko talde argazkia. EME eguna, Elgoibarko musika taldeek eskaintzen dituzten musika emanaldiak dira. Orain dela bi urteko argazkian; 30 gizonezko, 0 emakume. Larunbateko talde argazkian; 36 gizonezko, 6 emakume. Bada zerbait?

Pornografia eta hezkuntzari buruzko Soraluzen antolatu zen hitzaldi batean parte hartzeko aukera izan nuen Martxoan. Zehazki ezin esan zenbat emakume egon ginen, 15 bat. Gizonezkoena errazegi gogoratzen dut; 0.

Badira zazpi urte, familientzat euskararen sustapenari lotuta saioak ematen ditudala nire lan esparruan. Urte hauetan, 150 hitzalditik gora emango nituen. Parte hartu duten gizonezkoak ez dira %5era iristen. Hitzaldi gutxi batzuetan atzaparrekin kontatu daitezke aita direnak, eta gehienetan atzaparririk ere ez dut behar; 0.

Eta aipatuko dudan zerrenda ez da big-data bat, baina genero datu zertzelada batzuk gogoan ditut Soraluzeko hainbat gaitan; jaietako egitarauari lotutako datuak, eskola kontseiluko gurasoak, kirol ekitaldiak, haurren aisialdiari lotutakoak, Sorapediako pertsona ezagunen zerrenda, ... Espazio publiko-pribatuan eta zaintzan badago interpretaziorako pistatxoren bat adibide hauetan. Nor dago non? Baina batez ere, zergatik?

Hala ere, 50 eta 50 ez da bilatu beharreko emaitza. Zerbaki hutsek ez dute ekarriko parte-hartze aske eta parekidea. Ekimenak antolatzeko abiapuntuan begirada ipinita, eta prozesuan, eta espazioen erabileran, eta elkarren zaintzan, eta... bestela, zero patatero.

**ZENBAKI HUTSEK EZ  
DUTE EKARRIKO  
PARTE-HARTZE  
ASKE ETA  
PAREKIDEA**

# "BPTDk irudiaz gain, ematen digu lehiatzeko gaitasuna"

---

**TESTUA** EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

---

BPTD, Basque Precision Technology District, 2019an eratu zuten eragile publiko eta pribatuek eta gaur egun Debabarreneko eta inguruetakozko prezisio teknologia arloko 41 enpresa batzen ditu bere baitan (bi dira Soraluzekoak). Iaztik, Iñigo Perez-Arregi De Codes (Donostia, 1968) da elkartearen presidentea. Donostiarra den arren, ondo ezagutzen du bailarako industria, bere lan-ibilbide osoan zehar bailarako enpresetan lan egin du eta. Duela hogeita bost urtetik Eibarren dihardu, EPC enpresan. Bertan erantzun ditu DKTren galderak, elkarteak ekainaren 14an Ermuko Izarra Centren egingo duen urteko batzar nagusiaren aurretik.

## **BPTDk sei urte beteko ditu aurten. Zein balorazio egiten duzu urteotako ibilbideaz?**

Elkarteak ibilbide laburra du oraindik, baina dagoeneko, bailararentzako balio handia duten enpresak batzen ditu bere baitan. Datu batzuk ematearren, momentu honetan, elkartearen dauden enpresek 596 milioi euroko negozio bolumena mugitzen dute, 44 milioi gastua dute I+G arloan eta 4103 pertsonari ematen diote lana. Ekintzen artean, berriz, nabarmenduko nituzke marketing digitalean trebatzeko programa, estatuko bi azokatan dugu presentzia, Goierri Valleyrekin dugu aliantza estrategikoa nazioarteko azoka eta misioetarako eta enpresa sortu berriei eskaintzen dihardugun mentoretza.

## **Zergatik da garrantzitsua eskualde mailako elkarte edo marka izatea?**

Gure enpresen tipologiagatik. Txikiak gehiago dira ertainak baino. Gertutasuna. Elkarteak aukera ematen du bailaran proiektuak bateratzeko, elkar ezagutzeko, lankidetzan jarduteko, elkarrekin irtenbideak aurkitzeko. Horrek guztiak indar eta batasun irudia emateaz gain, ematen digu gaitasuna merkatuan lehiatzeko.

## **Nolakoa ari da izaten sektorearen bilakaera azken urteotan?**

Nolabaiteko kezka bizi dut hori, ikusita gure enpresak gehiago daudela zuzenduta

erlaldaketara produktu berriak sortzera baino; horrek arrisku handiagoa dakar. Testuinguru globalaren eta gure sektore teknologikoan bilakaera oso oso azkarra da. Ez dago su-etenik. Alde horretatik, BPTDk zeregin garrantzitsua du dibulgazio lanean eta tamainagatik erronkei aurre egiteko zailtasun gehiago dituzten enpresei laguntzen. Aurtengo urteari dagokionez, bigarren seihilekoa hobea izango delakoan gaude. Dena den, aurreikustea oso zaila da. Agerikoa da egoera soziopolitikoarekiko dependentzia eta gaur gaurkoz, egonkortasunik ez da existitzen.

## **Zein dira Debabarreneko enpresen indarguneak?**

Esperientzia eta orainaldi honetara arte ekarri gaituen historia. Gainditu ditugu krisiak, biziraun dugu, badugu jakintza eta badakigu egiten.

## **Eta ahulguneak?**

Gure industria sarearen egitura eta osaketa: gehienak pymeak dira, eta batez ere txikiak, geroz eta gehiago eraldatzaileak eta produktu gutxiago dutenak. Gainera, merkatu berrietarako sarbidea, nazioartekotzea, eskakizun administratiboak, burokrasia orokorra... Horiei guztiei erantzuteko baliabide asko behar dira pertsonalak zein ekonomikoak, eta orohar enpresa txikiak ez dituzte. Agertoki horretan, elkarteari erraztaile izatea dagokio, produktu eta prozesu berriak garatzeko, berrikuntzan aurrera egiteko, nazioartekotzean, etab.

## **2024ari begira, zein dira BPTDren helburu nagusiak?**

Maila estrategikoan, hiru azpimarratuko nituzke: Elkartearen osagai estrategikoa izatea bailarako garapen industrialean, Elkartearen tamaina handitzea indar gehiago izateko eta gure Juntak izaera aktibo eta proposatzailea izatea. Maila operatiboan, jarraitzen dugu aktibitate ekonomikoa sortzera bideratutako proiektuak garatzen, beste entitate batzuekiko eta administrazioarekiko aliantzak sendotzen, enpresen beharrei erantzuteko programak abiatzen... Horiek guztiak xehetasun gehiagorekin azalduko ditugu ekaineko batzarrean.



## Argazkirik ederrenak

**ARGAZKIA:** MIGUEL ROMERO

**TESTUA:** UBANE MADERA ZANGITU

Lore Barragan Laskurain eta Irati Aguado Alberdi dira argazkiko neskatilak. Miguel Romerok egin zien erretratua, Soraluzeko Kontrargi Argazki Kolektiboak antolatutako XXXIV. Argazki Rallyan. Azaroan jokaturako lehiaketak denetarik 42 argazkilari erakarri zituen eta biziki saiatu ziren haiek epaimahaiak proposatutako gaietan oinarrituta, argazkirik ederrenak ateratzen. Bi gazte horiena moduko beste argazki mordoxka bat dago ikusgai erakusketa gelan, rallyan ateratakoen artetik 36 ederrenak. Herriko lekuak eta batik bat, herritarrek erakusten dituzte. Maiatzaren 4ra arte ikus daiteke KontrargiAK izeneko erakusketa eta bisitariek 6 argazkiren zozketan parte har dezakete. Joan, ikusi, gozatu... eta akaso erregalo eta guzti etxera joateko moduan.





*J. Miguel Romero*

# "Hirigintzaren bitartez bizitza osasungarria erraztu daiteke"

PATXI GALARRAGA AIESTARAN PROJEKTA URBES TALDEKO ARKITEKTOA

Soraluzen Denon Kaleak prozesua abian da martxotik. Haren bitartez, espazio publikoak aztergai daude, espazio publikoa topaketarako baliabide gisa begiratuta eta genero-ikuspegia txertatuta. Prozesua Projekta Urbes arkitekto-taldea ari da gidatzen. Bertako Patxi Galarraga Aiestaran (Zarautz, 1972) arkitektoak azaldu du Hirigintza beste ikuspegi batetik aztertzearen garrantzia.

## **Hirigintzak uste baino eragin handiagoa du egunerokoan?**

Eskala oso handitik hasita -lurraldea nola antolatu, non kokatu ekipamenduak, ospitaleak-eta, nolako errepedeak izango diren... - eskala txikiraino, -komun publikoak non kokatu, zein ezaugarritakoak... eragin handia izango dute eguneroko bizimoduan. Zentzu horretan, ikasketa aldetik ez gaude nahikoa prestatuta, arkitektook erantzukizun hori ez dugu sentitzen. Oso desberdina da baserri bat egin, taberna bat diseinatu edo erabaki publikoak hartu. Gure erabakiek gizartearengan izan dezaketen eraginaren gaineko



Patxi Galarraga Aiestaran. PROJEKTA URBES

erantzukizuna ez zaigu transmititzen nahikoa. **Zein eragin, adibidez?** Adibidez, igogailuen eragina. Etxe baten igogailua edukitzea salto oso inportantea da. Zahartzaroen bazaude, pertsona bat pasa daiteke gizartearentzako desgaitua izatetik pertsona autonomoa izatera, eta, igogailua da desberdintasuna; edo alderantziz, pertsona bat izan daiteke autonomoa eta bat-batean, desgaitu bilakatu ez duelako igogailurik. Igogailua baldin badugu herriarekin elkartzeko bitartekoa dugu; ez baldin badugu, isolamenduaren

zikloan sar gaitezke, non zenbat eta gutxiago kalera jaitsi orduan eta isolatuago egongo naizen eta bizitzaren kalitatea oso baxua izan daiteke. Oraindik ere apustu handiagoa egin beharko litzateke igogailuengatik. Bizi-itxaropena 84 urtekoa da hemen eta urte asko eman daitezke bizi-kalitate txarrarekin, egoitza batera joatea toka daiteke eta Administrazioak nahi ez duen egoera batera iritsi, non egoitzak sobrekargatzen ari diren. Igogailua merkea da egiten duen onurarekin konparatuta. Herrian aparkalekua eraikitzen denean, guztien artean ordaintzen dugu. Zergatik igogailuak ez? Gizarte zerbitzuek hobe lukete igogailuetan gehiago inbertituko balute. Oso garestia da pertsona bat egoitzara bidaltzea, denok gure etxeetan zahartu nahi dugu eta foru aldundiek ere horrela

**"BAT IZAN DAITEKE AUTONOMOA ETA BAT-BATEAN DESGAITU BILAKATU EZ DUELAKO IGOGAILURIK"**





Soraluzen Denon Kaleak prozesuko saioretako bat, Kalebarrenen.

## "SORALUZEN BADUZUE ALTXOR OSO GARRANTZITSU BAT: ESPazio PUBLIKOAN DAGOEN INTERAKZIOA"

batzuk, bat-batean garrantzitsuak izaten has daitezke. Soraluzeko kasuan, beharbada begirada idealizatua da baina jendearengan igartzen da integrazio sozialaren dentsitate hori. Askotariko interakzio sozialak altxorra dira, ez daude herri guztietan; nahi lukete herri askotan edukitzea Soraluzen igartzen dugun hori. **Hobetzeko aukerak ikusten dituzue Soraluzen?**

Bai. Adibidez, aukeragune oso polita SAPAko aterpe berria da. Haraino joan behar horretan ere, bideko kale batzuetan oinezkoen presentzia areagotu egingo da, interakzioak ere bai eta horrek aktibatuko du berriz kalea. Beste bat da erdigunea, udaletxe inguru hori. Jendearen arteko harremanak hortxe gertatzen badira, ba akaso hor kotxeak ezin dira ibili joan-etorrian. Baina hori herriak erabaki behar du. Zer irabazten den eta zer galtzen den. Eta ikusi ea merezi duen. Kotxean eserita doan pertsona batek 3-4 minutuan luzatu beharko du bere ibilbidea hortik ezin bada pasa. Eibarren, adibidez, segituan galtzen dira minutu horiek eta ez diogu inportantziarik ematen. Kanpotik ikusita aukera handia dago erdigunea topaketarako eta inklusiorako leku bezala garatzeko. Istripu arriskua, kutsadura, zaratak... gutxitu eta osasun fisikoa, mentala eta soziala irabaziko lirateke.

nahiago dute, beraz, sortu beharko dira dirulaguntza gehiago edo dena delakoa igogailuetarako, ezin da segi izaten gizabanakoen ardura. **Soraluzen Denon Kaleak prozesuan azpimarratu zenuen zoriontasuna areagotzen ere lagun dezakeela hirigintzak.**

Hirigintzaren bitartez gure osasuna babestu egin dezakegula nahiko erraz ulertzen dugu. Bada, hirigintzaren bitartez gure osasuna babesteaz gainera, bizitza osasungarria erraztu daiteke. Jo dezagun daudela paseatzeko lekuak, bidegorriak, parkeak, denda txikiak jartzeko erraztasunak, kotxeak neurritz kanpo erabiltzeko zailtasunak... neurri horiei guztiei esker bizitza osasuntsua bultzatu dugu hirigintzaren bitartez; elkarbizitza ere bultzatzen da horrela eta badakigu hori ere ongizatearen parte dela. Gizarte inklusioa ere landu daiteke, adibidez, ez da gauza bera etxebizitza babestu guztiak herriko izkina batean egitea ala udalerrian zehar txertatzea, leku baten baino gehiagotan. Denak bazter batean jartzen baditugu aukera handiak ditugu

bazterkeria egoerak sortzeko. Tresnak izan baditugu, batzuetan falta dena da bultzada politikoa eta bestetan anbizioa. **Zela ikusten duzue Soraluze?** Soraluzek dituen ezaugarriekin, oso nabarmena da ahal dena dagoela eginda. Bestalde, Soraluzen baduzue altxor oso garrantzitsu bat: espazio publikoan dagoen interakzioa. Uste dugu gauza oso ebidente batekin zerikusia duela: jendea elkarrekin badago, interakzio gehiago dauzka, inklusiboagoa da eta ez dago segregaziorik. Hori Plazentzian oso nabarmena da eta guretzat oso ikasketa handia izan da. Hortik zera ikasten dugu: ez da urrezko arau bat espazio publiko bat zenbat eta handiagoa, orduan eta hobeto. Adibidez, Gasteizen, Salburua, Lakua... hain zabala da dena, hain urruti dago dena, joan ahal zarela ogi bila edo erosketetara eta etxera buelta inorekin elkartzeke, orduan, planifikatu gabeko interakzio sozialak asko jaisten dira. Soraluzen, gauzak oso hurbil daude; batzuentzat desatsegina ere izan daiteke hori, kontrol soziala, zaratak... baina bakardadera iristean, gauza

# Bertso-mobida indarrean

BERTSOAREN BUeltako JARDUNA SENDOTU EGIN DA HERRIAN

---

## TESTUA ETA ARGAZKIAK EGOITZ

### UNAMUNO

---

Zorioneko behar dute bertsozaleek herrian, izan ere, azken garaioan bertsoaren inguruko mobida nabarmen hazi da herrian. Gaur egun, bertsoaritzan trebatzeko bertso eskola dago herrian bai helduena eta bai gaztetxoena: BertSora. Horrez gain, urtean zehar, hamaika bertso-saio antolatzen dira askotariko formatuetan: jaialdiak, poteoak, kopla-eskeak, mahai bueltakoak...

### Bertso eskola oinarri

Duela sei-zazpi urte, herriko zenbait bertsozale elkartu eta bertso eskola sortzea erabaki zuten, gerora, bertSora izena hartu duen helduen lehen bertso eskola. Gaur egun, sei-zazpi lagun elkartzen dira Elkartegian, bi astean behin, eguazten arratsaldetan eta pare bat orduz bertsoan egiten dute elkarrekin. Eneko Beretxinagak egiten ditu gidari lanak eta denetik egiten dute: errima jolasak, doinuak errepasatu eta gaiak jarrita bertsoan egin ere bai. Denek konpartitzen dute helburu bera: bertsoan eta bertsoaren bueltan gozatzea.

Bestalde, duela hiru urtetik, martxan da gaztetxoan bertso eskola ere. Hala, gaur egun, 11 eta 12 urte bitarteko bost gaztetxo batzen dira, eguenero, ordu bietatik hiruretara,



Helduen taldeko kideak bertso eskolan.

ikastetxean. Hauek ere, jolasa eta gozamina izaten dituzte ardatz, Eneko Beretxinagaren gidaritzapean. Hain zuzen, herriko gaztetxo gehienek, Beretxinagaren bitartez izaten dute lehen kontaktua bertsoarekin, Bertsozale Elkarteko irakasleak astero bertsoaritzaz irakasten dielako ikastetxeko 5. mailako ikasleei. Ondoren, afizio handiena dutenek bertso eskolan ematen dute izena.

### Hamaika ekimen urtean zehar

Bertso Eskolaren jardunak lagunduta, azken urteotan, nabarmen hazi dira bertso saioak herrian. Horietako asko bertso eskolaren ekimenez antolatzen dira, esaterako, aurten, Santa eskeko kopla saioarekin abiatu zen urtea, ondoren, etorri zen Señora

Eguna eta atzetik, Korrika garaian antolatu zen bertso-poteoa. Hurrengo zapatuan, berriz, bertso bazkaria egingo da Nerea Ibarzabal eta Julio Sotorekin eta ekainaren 2an Gipuzkoako Txapelketaren sailkapen faseko azken saioa egingo da antzokian. Aurrerago etorriko dira Santiago-Santa Ana jaietako eta Gabonetako jaialdiak eta Gaztañerren bueltakoak. Gainera, horiei gehitu behar zaizkie, urtez urte, sanandrestarrek auzoan antolatzen dituzten mahai

**DENEK KONPARTITZEN DUTE HELBURU BERA: BERTSOTAN ETA BERTSOAREN BUeltAN GOZATZEA**

bueltakoak; aipatzekoa da Egañak eta Lizasok hogeita hamabost urte baino gehiago daroatela bertan kantatzen. Beraz, aurren ere izango da bertsoaz gozatzeko aukera Sorraluzen.

### **Beretxinaga Gipuzkoako txapelketan**

Horiek denak gutxi ez eta aurren, Eneko Beretxinagak izena eman du Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan eta ondorioz, sailkapen fasean kantatuko du, hain zuzen, gaur, barikua, Zestoako kultur etxean. Bere esanetan, "txapelketan kantatzea motibazio extra bat da jendearekin elkartzeko eta bertso eskolan asteroko jardunari zentzu gehiago emateko". Sailkapen fasean 74 bertsolarik jardungo dute kantuan, eta horietatik 48 sailkatuko dira bigarren itzulira. Bigarren itzuliko azken saioa Sorraluzen jokatu da. Zorte on Eneko!

### **Agenda**

#### **Bertso-bazkaria**

Apirilaren 27an, Lagun Maiteak elkartean.

#### **Gipuzkoa Bertsotan saioa**

Ekainaren 2an, Herri-antzokian.



Gaztetxoek taldea bertso eskolan.



Kasturte amaierako jaialdia iaz, Herri-antzokian.



Bertso-bazkaria iaz, Lagun Maiteak elkartean.

# PUBLIZITATEA

**ELIZPE HORTZ KLINIKA**

Zure gertuko hortz klinika, punta-puntuko teknologian lan egiten dugu. Cad Cam sistema berritzaile arazatzen dugu.

Elizburu, 3 behea  
SORALUZE  
Tel: 943 75 25 67  
Bilag: 943 75 25 19  
e-mail: elizpeh@gmail.com

Ordatokia:  
Astelehenetik ostiralera:  
09:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00



**MENDIZABAL**  
okindegia  
Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelehenetik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbatak eta igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel: 943 75 13 99



**OTELA HARTZIDA**

Enkarguak hartzen ditugu  
Gertuko ganadua  
Etxeko tripa, txistora,  
salbitza eta mingaina

Etxebarreta 5  
Telefonoa: 943 75 23 75



**SORALUZE MOTOR**

Mendiola ind. 13  
Sorraluze

476 556 817 - 943 75 21 38



**Kontulan**

Aholkularitza fiskala - Kontabilitatea  
Lan-aholkularitza - Zerbitzu juridikoa  
Ticket bai - Outsourcing - Aseguruak

www.kontulan.com

**Hortz klinika**

Erreal 1  
Tel.: 943 75 16 13

30 urte baino gehiagoko esperientzia

odontologia, protesiak, ortodontzia,  
odontopediatria, implantak, estetika...  
Zerbitzu radiologiko orokorra (3D):  
ekianerria, orto eta tele.

Arilar Alonso  
Mediku Estomatologoa  
K.Z. 48.000.591

Katia Gustinio  
Odontologoa  
K.Z. 48.001.541



**Txoko**

Eguneko menua,  
plater konbinatuak,  
hamburgerak,  
ogitarlekoak,  
natiak,  
pizak,  
gosiak...

Enkarguak egiten dira  
Tel. 943 75 17 88



**MGS Seguros**

Veronica Galarraga  
Gertuko eta segurua

Astelehenetik ostiralera:  
10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30

Santa Ana 13  
☎ 645 744 055



**FOGASLER ITURGINTZA**

943 75 16 46 (Sorraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)  
fogasleriturgintza@gmail.com



**Criado**  
Fruitatologia Urdaitegia

• Enkarguak Whatsapppe  
• Etxerako zerbitzua  
• Iberikoak & delicatessen

Astelehenetik ostiralera:  
09:00-13:00 eta 17:00-20:00  
Larunbatak: 09:00-13:00

☎ 629 958 636



Sorraluzeko  
Kooperatiba Elkarteak  
1910ak eraiki

Arriandegia, janaria,  
errapak, etxeko tresnak,  
etsara eramateko zerbitzua

Kalebarren 4  
Tel.: 943 75 13 45

Astelehenetik ostiralera:  
08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45  
Larunbatak: 08:30 - 13:00



**TXURITXU GOZOTEGIA**

Astelehenetik ostiralera:  
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larunbatak: 08:30-13:00  
Igandeak: 08:30-14:30

Gosariak, ogia,  
perrea, pastelik,  
boriboiak...  
Etxera eramateko  
zerbitzua

Tel. 943 75 24 43



**IZXGURRE**  
Igeltzeritza

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza  
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913



**ODR**  
ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietakoko  
leihoen,  
pertsianak,  
ateak, barandiak  
salmerita eta  
korponketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609  
Bego Etxeak Kalea 2 - 20090 SORALUZE  
e-mail: odrleihoak@gmail.com



**Atamar**  
SOLARIZATZA

Ilargipaindegia  
Estetika  
Solarizama

Gabildeg 4, Añeta  
Tel.: 943 75 13 11 - 682 51 34 94



Bidelagun euskaltzaletasunean

**SOMABE** Supporting your projects

**aras**

**ALBISUA** S.L.

**laibi** ELECTRICIDAD



**Mekanizazioa erdi-mailako eta Fabrikazio mekanikoko goi-mailako ikasle-ohia.**

**Enpresa: Fagor Ederlan  
Lanbide Heziketa**

#### **Nor da Alberto Arribas?**

Alberto Arribas naiz, Soraluekoa, 20 urte ditut, erdi mailako mekanizatuko zikloa eta goi mailako fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioko zikloa ikasi dut IMHn, Ziklo Duala Fagor Ederlan enpresan egin dut eta han jarraitzen dut lanean. IMHra joan aurretik Soraluez BHn ikasi nuen, eta nire afizioak kirola egitea eta autoen mundua dira.

#### **Zergatik aukeratu zenuen Mekanizazioa eta Produkzioaren programazioa egitea?**

Nire jakin mina pizten zidan gaia izan da betidanik, makinak erabiltzeko teknologiak ezagutu, lanak antolatu eta egin ahal izatea.

#### **Zergatik aukeratu zenuen IMHn ikastea?**

Etxetik gertu dagoelako eta ikastetxeari buruz erreferentzia onak entzun nituelako.

#### **Zein da zure iritzia orain arte IMH-n eta dualean ikasi eta bizi izan duzun esperientziari buruz?**

Nahiz eta teoria asko landu, praktika asko ere lantzen da, lan munduan sartzeko ate asko irekitzen dizkizu eta nire esperientzia oso positiboa izan da nire ikaskideekin eta irakasleekin.

#### **Euskoskillsetan parte hartu zenuen CNC Fresaketa proban eta baita irabazi ere. Apirilean Spainskillsetan parte hartu duzu. Ze ekarpen egiten ari zaizu esperientzia honek?**

Aide batetik, oso intentsoa egiten ari zait lana eta Spainskills-eko prestakuntza aurrera eramatea. Aldi berean badaude gai batzuk niretzat ezezagunak direnak, baina nire irakaslearekin batera konpontzen eta aurrera jarraitzen saiatzen ari gara. Izan ere, garrantzitsuena da nire irakaslearekin batera Madrilen parte hartzeko konpromiso handia hartu dugula, beraz eta esperientzia disfrutatu eta ahal dugun hoberen salatu gara.

#### **Esan ahal diguzu zein den IMHn ikasten pasatako garaitik gehien gustatu zaizuna?**

Nire ustez, egin ditudan lagun guztiak dira, eta beraiekin batera ikasitako guztia azpimarratuko nuke eta baita makinei buruzko esperientzia on guztiak erronkak bukatzerakoan.

#### **Ze asmo duzu datorren urterako?**

Printzipioz, lanean jarraituko dut, baina ikasketak ez ditut alde batera utzi nahi.

#### **Zer esango zenioke zurea moduko zikloak ikasteko zalantzan dagoen pertsona bati?**

Epe laburrean lan munduan sartzeko aukera asko izango dituela eta ziklo oso konpletua dela, gai asko ikasteko eta lagun berriak egiteko.

## Informazio Saioak



**Maiatzak 11 - 11:00  
Maiatzak 15 - 17:00**

# Artista familia



---

**TESTUA** EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIAK: HERRITARRAK.

---

Johnny Circusek zirkuaren osagai klasikoak ditu: trapezista, akrobata, malabarista, domatzailea eta pailazoa, eta horrekin batera tematika bat: 'Les stars du cinema' (Zinema izarrak). Horregatik agertzen dira espektakuluan Velociraptorra, Mario eta Luigi eta Les Lapin Cretins animazio filmeko untxia. Osagai eta berezitasun nagusia, ostera, artistak eura dira: Johnny eta Sara senar-emazteak eta euren seme-alabak, Christina, Kelian eta Tyler. Jatorriz Bordelekoak dira (Okzitania) eta zirkuari lan egin zuten aitona-amonen ondorengoak. Duela 18 urte sortu zuten euren zirkuari eta ordutik herri batetik bestera dabilta. Umeak eta helduak gozaraztea dute helburu eta Soraluzean, behintzat, lortu dute. Bejondeiela!





## GUTUNAK

### Gabolatseko zubi berria

**IKER ALDAZABAL BASAURI**

EAJ-PNV-REN BOZERAMALEA

Apirilaren 10eko osoko bilkuran, Udalean ordezkartza dugun alderdi politiko guztiok, aho batez, onartu genuen Soraluzeko Udalaren eta URA-Uraren Euskal Agentziaren arteko lankidetzaren hitzarmena. Hitzarmenak, Eusko Jaurlaritzako URA-Uraren Euskal Agentziak, Gabolatseko zubi berriaren proiektua burutuko duela jasotzen du. Lanei hasiera udazkenean ematea aurreikusten da eta 1.888.603,08 euroko inbertsioa suposatuko dute. Proiektua URA-Uraren Euskal Agentziak finantzatuko du osotasunean aurreko agintaldian lortutako adostasunari esker.

2023. urteko martxoan aurkeztu zen zubi berria. Udal

ordezkariez gain, Antonio Aiz, URA-Uraren Euskal Agentziako zuzendari Nagusia ere izan zen Soraluzen «Soraluzeko Gabolats zubia ordezkatzeko proiektuaren» berri emateko.

Zubi berriak 5 metroko zabalera izango du, 3 metro ibilgailuentzat eta 2 metro oinezkoentzat. Honi esker, ibilgailuen eta oinezkoen joan etorriak segurtasunez egin ahalko dira. Zubiak orain presa efektua egiten du ibaiaren ibilgua baldintzatuz. Arazoari bide emateko zubi berriak ez du habirik izango, uholde-arriskua ekidinez.

Bestalde, zubi alboan dagoen SAPAko pabiloiaren zahar berritze lanak bukatzeaz daude. Udalak 2019an hirigintza-hitzarmen bidez pabiloiaren jabetza eskuratu zuenetik, eremua berreskuratzeko burutu beharreko tramitazio

urbanistiko eta proiektua gauzatzeko finantziarioa lortu ondoren, lanak iazko martxoan hasi ziren. Bertan herritarren aisialdirako, erabilera anitzeko gune estalia eraikiko da. Herriko ondare industrialaren mantentzeko helburuarekin, orain arte ikusten ez zen pabiloiaren metalezko egitura mantendu eta bistaratu egin da. Lan hauek 1.190.000 eurotako inbertsioa suposatuko dute. Aurreko agintaldiko Udala Gobernuak egindako kudeaketa lanei esker, Gipuzkoako Foru Aldundiak 700.000 euroko dirulaguntza eman du eta Eusko Jaurlaritzak 440.000 eurokoa proiektua gauzatu ahal izateko. Hirigintzako bi jarduketak hauei esker, udalerrian degradatuta zegoen eremua birgaitzeko aurrerapauso garrantzitsua emango da.

**GUTUNAK: Karaktreak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

## KOMIKI TIRA





## HAUSNARKETA

**Zelan egin izan dituzue hiletak etxean?  
Eta zuenak zelakoak izango dira?**

Asko aldatu dira hiletak egiteko moduak



**ANTONIO  
GONZALEZ  
RODRIGUEZ**

"Guk errausketa nahi dugu. Agurra, berriz, ba elizatik egitea, familiarengatik, batik bat. Dena den ez dugu ezer pentsatuta, bakarrik berba egin izan dugu errausketari buruz. Familiak panteoia duenez, han sartuko lirakeke errauts-kutxatilik, baina lurperatu ez".



**JOSE  
MANUEL  
MUÑOZ**

"Gurasoak lurperatu eta erre, biak. Hiletak elizatik egin ditugu. Gu elizara joango gara eta gero erre; semea, ez dakit, ez dugu barbarik egin. Mendaron, elkarte bat dago herri osoarendako; hileta dagoenean, handik ordaintzen da guztia, hildako bakoitzeko kide bakoitzak bi euro ipinita".



**LEIRE  
NOGALES  
AGIRRE**

"Etxean, hileta katolikoak egin ditugu. Ez nekien ezta hileta zibilak existitzen zirenik ere. Nirea edo ingurukoena zelan nahiko nukeen ez dut pentsatu. Baina denok elkartu eta bazkari bat egitea-edo. Ez naiz konturatuko ezertaz, beraz, nahi dutena egin dezatela nirekin".



**IRATI  
IÑURRIETA  
GANTXEGI**

"Elizatik egin izan dugu. Ez dut pentsatu gertukoenen hiletetan; etorri denean, hileta ohikoa egin genuen, kolpe hori eta gero denok elkartzeko bide errazena eta azkar erabaki beharrekoa zelako. Nik nahiko nuke maite nautenak elkartzea eta agur bat ematea, berdin zait zelan".

## PUNTUA



**GAIZKA AZKARATE UZIN**

**Txilborretik at!**

**E**kimen hau taldean, lan hori batera edo kirol honetan garrantzitsuena talde jokoa da sarri entzuten diren esaldiak dira. Duela astebate *scape room* bat egin nuen eta han ere hasi aurretik zera esan ziguten: *Eta gogoratu, hemendik onik ateratzeko gakoa elkarren ondoan mantentzea* da (amaitu aurretik ahaztu zitzaigun).

2024. urtean EAEn 2000 kooperatibatik gora daude eta horrek erakusten du taldean lan egitearen balioa. Kirol jarduerak taldean egiten dituzte gehienbat ume, gazte zein helduek eta kalera poteatzera kuadrillan ateratzen gara. Hala ere, ezinbestean, konturatuta nago gaur egungo pertsonak barrura begira bizi garela eta ez dugula gure ingurua kontuan hartzen zenbait erabaki hartu behar izaten ditugunean. Noski, norbaitek horrelako jarrera bat aurpegiatzen digunean ez gara identifikaturik sentitzen. Ba ote dago inguruko pertsonen ongizatean eragiteko aukera baliatzea bezain gauza aberasgarriagorik? Familian, lagun taldean, lan jardunean edo bestelako ekosistema pluraletan hartzen ditugun erabakiak garrantzitsuak dira eta norbaitengan eragina dute beti, ez baikara bakarrik bizi munduan.

IGANDEA

ASTELEHENA

ASTEARTEA





Soraluzeko hilerria. Hilarrietan erlijio ikur katolikoekin batera, euskal ikurrak ere ageri da.

# Azken agurra emateko modu berriak

Jaiotzen garetik segurua den kontu bakarra da noizbait heriotza ailegatuko dela. Heriotzari lotutako ospakizunak edo errituak belaunaldi eta kultura guztietan daude presente, baina ez dira denetan berdinak. Gainera denborarekin, gizartea aldatu ahala, hiletan ingurujo tradizio edo ohiturak ere aldatuz doaz eta egiteko modu berriak errotuz.

Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Fernan Oregi Txurruka eta Donostiako Elizbarrutia**.

**A**zken hamarkadetan, asko aldatu dira herritarren sinesmenak eta ohiturak. Zenbait adituk dioten moduan, ez gara bizi erlijioen garaian. Gure Europa Mendebalde honetan nagusi izan den erlijio kristauan nabariko da hori datuetan.

Espainiako CIS etxearen arabera, 2021ean Espainiar Estatuko herritarren %55,4ak bere burua katolikotzat zuten eta 2024an, berriz, kopuru hori apenas ailegatzten den %50era. 1978an, datuak biltzen hasi zirenean, berriz, %90,5ak aitortzen zuen bere burua katolikotzat.

Agnostikoei, atoei edo indiferenteei dagokienez, berriz, boskoiztu egin da halakoen kopurua eta %7,6 izatetik %39,3 izatera pasa ziren 2021ean, 2024an %44,1era iristeraino.

Euskal Autonomia Erkidegoko datuak antzekoak dira. 1985ean, herritarren %81ak katolikotzat zuten euren burua, %1 zen beste erlijio batzuetakoa eta %17 ziren ez fededunak. 2202an, berriz, %55era jaitsi zen katoliko kopurua, %5era handitu da bestelako erlijioetako fededunak eta %40raino ez fededunak.

### Hileta laikoek gora

Horrek ondorioak ekarri ditu herritarren zenbait ohituratan. Besteak beste, denoi eragiten diguten hiletetan.

Orain dela 15-20 bat urtera arte, hiletan ia %100a (ehuneko ehuna ez esatearren) elizaren bitartez egiten ziren. Gaur egun, berriz, gero eta gehiago dira hileta zibilak egiten dituztenak, bakoitzak bere erara.

Hileta zibilak, laikoak edo akonfesionalak egiteko moduetako bat da ehorztetxeek eskaintzen dituzten zerbitzuak erabiltzea.

Adibidez, tanatorioko gela batean egitea hildakoari azken agurra. Gainera, azken agur hori norbere beharretara egokitu daiteke; egin daiteke horretarako propio dagoen pertsona batek gidatuta edo zeremonia pertsonalagoaren bitartez. Ehorztetxeek eskaintzen dituzten zeremonien artean, tematikoak ere badaude, hildakoaren nortasunera egokitutakoak (musikalak, bidaien gainekoak...).

Bestalde, azken agur hori hilerrian emateko aukera ere eskaintzen dute ehorztetxeek, gorpua erre barik, hildakoa lurperatu nahi dutenentzat.

Badira, hildako senideari azken agurra tanatorioan eman eta hiletarik egiten ez dutenak ere, eta baita hileta zibil pribatuak edo publikoak egiten dituztenak ere. Hori dela eta, azken urteotan, hileta zibilak arautzeko ordenantzak onartu eta aktibatu dituzte udalerrri askok, horien artean Soraluzeko Udalak.

### Hileta laikoaren ordenantza Soraluzeko Udalean

Soraluzeko hileta zibilen ordenantzan jasota dagoenez, Estatu akonfesional edo laiko batean, erakundeek bermatu behar dute pertsonen eta komunitateen askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta gurtzekoa. Gaineratzen duenez, "ezaguna" da gure gizarteak "zer nolako aniztasun ideologiko, erlijiosoa eta kulturala duen" eta "hileta zibilak egitea eskaera sozial bat" eta horri erantzun nahian, "xede horretarako gune publikoen egokitzapena" arautu du.

# %55

**37 URTEAN, %81 ETIK  
%55 ERA JAITSI DA  
KATOLIKO KOPURUA**

# %40

**AGNOSTIKO, ATEO EDO  
INDIFERENTE KOPURUA  
%17 TIK %40 RA IGO DA**

# 1963

**V. MENDETIK 1963 RA  
ARTE ELIZAK  
ERRAUSKETA  
DEBEKATU EGIN ZUEN**



Lehen argazkian, Arbasoen Baratza, funtzio ugarrirako erabiltzen dena.

Bigarren argazkian, Udalak kolunbarioak ezartzeko egokitzen diharduen espazioa.

Soraluzeko kasuan, hileta zibilak frontoian edo hilerrian egin daitezke, beti ere, leku horiek beste erabilera batentzako erreserbatua ez baldin badaude, eta "aparteko egoeretan baimena eman ahal izango da beste lokal edo espazio publikoren bat erabiltzeko".  
Ordutegiari dagokionez, astelehenetik zapatara, 18:00etatik 20:00etara egin ahal dira eta zapatuetan, 12:00ak eta 14:00ak bitartean ere bai.

Hiletaren antolaketa eta gastuak eskatzailearen kontura izango dira, baina Udalak gutxieneko materiala lagako du: megafonia-ekipoa, hilkutxa jartzeko euskarria eta aukerak (gehienez, hamar) eta udal langileen laguntza izango da ekitaldian.

2021ean eta 2022an, hileta zibil publiko bana egon zen frontoian.

### Errausketa debekatuta

Bestalde, hiletetan ez ezik, hildakoaren gorpuari ematen zaion tratamenduan ere aldaketak izan dira.

Kristautasunak V. mendean debekatu egin zuen kremazioa. Horren ondorioz, mendetan, kristauen hildakoak lurperatu egin izan dira, salbuespenak salbuespen.

1963an arte segitu zuen indarrean kremazioak egiteko debekua, Pablo VI. Aita Santuak debeku hori altxatu zuen arte. Are gehiago, 1966an apaiz katolikoei errausketa-elizkizunak egiteko aukera eman zieten. Parrokia katoliko batzuek "zinerarioak" eraiki dituzte, fededunek euren maiteen errausketa zeremonia sinple batean "sokratuan" uzteko.

### Kolunbarioak Soraluzeko hilerrian

Gaur egun, gehiago dira lurperatu barik gorpuak errausten dituztenak. Eta horren eragina bestelako zerbitzuetara ere zabaldu da. Esaterako hilerrietara.

Soraluzeko hilerrian, orain arte, errausketa lagatzeko leku ofizial bakarra egon da, Arbasoen Baratza. Aurrerantzean, berriz, beste bat ere izango da. Hainbat herritarren eskariari erantzunez, Soraluzeko Udala 20 kolunbario bikoitz ari da egokitzen, eta, maiatza inguruan erabilgarri izango dira.

Beste aukera bat da errausketa familiaren nitxoetan zein panteoietan sartzea. Askok dira ere errausketa etxean gordetzen dituztenak edo leku kuttunen batean haizatzen edo lurperatzen dituztenak.

**Errautsendako bitxiak, globo sondak...**

Errautsekin lotuta, ehorztetxeek ere gero eta eskaintza zabalagoa dute. Ezagunenak errauts-kutxatila dira; gaur egun ekologikoak ere badaude. Eta badaude ere, bere baitan errautsak gordetzen dituzten bitxiak (lepokoak, eskumuturrekoak, eraztunak...), errautsak solidifikatu eta harri forma emateko aukera, biniloko diska bihurtzekoa, globo sonda bitartez estratosferara bidaltzeko aukera (grabazio eta guzti), eskopetaz jaurtitzeko aukera eta hildakoaren ilearen karbonoarekin diamanteak egiteko aukera ere bai.

**Elizkizunak nagusi**

Hori bai, aldaketak aldaketa eta berritasunak berritasun, oraingoz, herritar askok eta askok eusten diote hileta elizan egiteko ohiturari. Hori bai, gizartearen joera berriek bultzatuta, kasu honetan ere izan dira aldaketak, batik bat, apaizak nabarmen gutxitu baitira. Hala, Debabarrenean eta ondorioz, Soraluzen ere, egoera berrira egokitzen ari dira.

Horren erakusle, laikoak gero eta pisu handiagoa hartzen ari dira elizaren baitan. Hiletan kasuan, orain arte, senide bat hiltzean, zuzenean herriko parrokoarengana joaten zen hiletarako prestaketak egitera. Gaur egun, berriz, justu apaiz falta hori dela-eta, bai Elgoibarren eta bai Soraluzen, erreferente bezala, bi pertsona daude. Norbait hiltzen denean, familia edo beilatokia, zuzen-zuzenean bi pertsona horiekin jartzen da harremanetan. Ondoren, eurak apaizekin jartzen dira kontaktuan, Donostiako Elizbarrutiko bikario nagusi Mikel Aranguren azaldutakoaren arabera. (Segidako orriko elkarrizketan xehetasun gehiago).

**Bestelako ohiturak**

Bestalde, migrazioaren eraginez, handitu egin da bestelako kultura batzuetatik etorritako bizilagun kopurua. Soraluzen, handiena komunitate musulmandarra da eta haiek hiletakin lotutako bestelako ohiturak dituzte.

Abdelaziz Moujane Soraluzeke Meskita Komunitateko presidenteak esplikaturakoaren arabera, euren erlijioan, hildakoa lurperatu egiten dute. Duen ezaugarrien arabera zuloa egiten da, bertan gorpua sartu, lurrarekin tapatzen da eta gainean harriekin; azkenik, zuloa egiteko ateratako lurra botatzen zaio gainera. Gorpua Mecara begira egon behar da. Lehenago, garbiketa berezia egiten zaio. Eibarren leku berezitua dago horretarako. Adreiluz eta azulejoz egindako kamila batean jarri eta profesionalak garbitu egiten dute barrutik eta kanpotik, eta gero izara zuri batez inguratzen dute guztiz. Gorpua lurperatzean, aurpegia desestali egiten diote. Berdin lurperatzen dituzte gizonak, emakumeak zein umeak.

Soraluzeko komunitate musulmandarreko kide gehienek Burgosko hilerrira bidaltzen dituzte hildakoak lurperatzeko, han badutelako musulmandarrendako egokitutako hilerria eta hemen ez. Asegurua izanez gero, berriz, jaioterrira eramaten dute. Hori egiten dute tokian tokiko meskitan azken agurra eman ondoren. (Segidako orriko elkarrizketan xehetasun gehiago).



Argazkiotan ikus daitezke hildakoaren errautsekin edo haren oroitzapena izateko sortutako bitxi batzuk. FUNEUSKADI.

**MUSULMANDARREK  
ASEGURUA BALDIN  
BADUTE, GORPUA  
JAIOTERRIRA  
BIDALTZEN DUTE**



Mikel Aranguren bikarioa. DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA

## "Apaizek egiten zuten lan asko orain laikoek egiten dute"

**MIKEL ARANGUREN** DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO BIKARIO NAGUSIA

Victoriano Etxabe, iazko abuztuan etorri zen Soralezera baina otsailaz geroztik gaixo dago. Harrez gero, herriko parrokiako ordezkariak zeregin handiagoak hartu dituzte elizan, besteak beste, hiletetan.

### **Nola antolatzen dira hileta elizkizunak?**

Hiletak direla eta, bai Elgoibarren eta bai Soralez, erreferente bezala, bi pertsona daude. Hau da, pertsona bat hiltzen denean, familia edo beilatokia, zuzen-zuzenean bi pertsona horiekin jartzen da harremanetan. Ondoren, eurak apaizekin jartzen dira kontaktuan. Asteko bost egunak, astelehenetik ostiralera, artzapez-barrutiko apaiz ezberdinen artean daude banatuta. Astelehenean, apaiz jakin bat, asteartean, beste bat... Aipaturiko bi pertsona horiek dagokion eguneko apaizarekin harremanetan jarri, eta hileta-ospakizunaren eguna, ordua...

adosten dute.

Beste gai garrantzitsu bat.

Aipaturiko bi laiko horiek ere tanatoriora edo hilerrira errespontsu bat errezatzera joan ohi dira. Hori guztia, lehen, apaizak egiten zuen, gaur egun, berriz, laikoek laguntzen dute; ez bakarrik Soraluze eta Elgoibarren, baita Gipuzkoako hainbat herritako parroketan ere.

### **Hiletetan ez ezik, mezetan ere parte hartzen dute?**

Victoriano, Elgoibarren eta Soralez ari zen parroko lanetan, baina bere osasun egoera dela medio, duela hilabete batzuk atsedean hartu behar izan du. Une honetan, bi herritako administratzaile, Horazio Argarate artzizprestea izendatu da. Donostiako Elizbarrutia, *Eraberrikuntzaren Prozesuan* murgilduta dago artzizprestazgo mailan antolaketak nola izan behar duen erabakitzeko. Bi herrietan, apaiza bertan bizi ez

arren, bai Soralez eta bai Elgoibarren, laikoek ardurak hartu dituzte. Argibide bat; laikoek ez dute mezarik ematen, *Hitzaren Liturgia* ospatzen dute baizik. Horrez gain, bi apaiz joaten dira bi herritako mezak ematera. *Hitzaren Liturgia* eta Eukaristia tartekatuz, hamabostean behin ospatzen dira. Artzizprestazgo mailan antolatzen ari gara egoerari behar den bezala erantzuteko.

### **'Hitzaren Liturgia'. Zer egin dezakete eta zer ez laikoek?**

Une honetan, adibidez, Ebanjelizazio arloan, katekesia e.a. laikoen esku dago, bai Elgoibarren, baita Soralez ere. Caritas, eta Osasun Pastoralta ere. Ebanjelizazio mailan, laikoen esku-hartzea garrantzitsua eta ezinbestekoa da. Ospakizunen inguruan, sakramentuak ospatzea apaizari dagokio: Eukaristia, bataioak, ezkontzak... Baina, adibidez, apaizik ez dagoenean, laikoak gidatzen du ospakizuna; horri *Hitzaren Liturgia* esaten zaio. Une honetan, hileko bi igandetan, ospakizuna laikoen esku dago. Ospakizun horren zentzua da apaizaren zain dagoen elkartearen ospakizuna; *Hitzaren Liturgiak* ez du Eukaristia ordezkatzeko, baizik eta Eukaristia ospatzera iritsi bitartean, kristau elkarteak ez dio uzten fedea ospatzeari, Jainkoaren hitza entzuteari eta kristau elkarte bezala elkartzeko da. Lehenik eta behin, zerbitzu hori egingo duten laikoak aurkitzea garrantzitsua da, baita, ondoren formatzea eta, zer esanik ez, beraiei laguntzea ere.

"BI LAIKOAK JOATEN DIRA TANATORIORA EDO HILERRIRA ERRESPONTSUA ERREZATZERA"

# "Hilerria izan nahiko genuke hemen"

**ABDELAZIZ MOUJANE** SORALUZeko MESKITA KOMUNITATEKO PRESIDENTEA

Soraluzen, kanpotik etorritako bizilagunen artean, komunitate musulmandarra da jendetsuena. Euren kasuan, hildakoekin lotutako bestelako ohitura batzuk dituzte. Abdelaziz Moujane da Soraluzeko komunitate musulmandarraren presidentea.

## **Hildakoak lurperatu egiten dituzue.**

Bai. Musulmandar bat hiltzen denean, Elgoibarren edo Eibarren garbitzen dute gorpua, Soraluzen ez dagoelako horretarako lekurik. Aproposena da hiltzen denetik ahalik eta lasterren lurperatzea. Hileta meskitan egiten da. Jendea bertaratzten da hildakoaren familiari laguntzeko eta jan-edanak eramaten ditu, bakoitzak ahal duena, elkartzen den jendearendako. Hileta egiten da hildakoa bertan dela. Imana hildakoaren atzean ipintzen da eta gainerako guztiak imanaren atzean. Zutik, otoi bereziak egiten ditugu, sallato aljanaza. Gero, hildakoa lurperatu egiten da.

## **Soraluzeko hilerrian ez duzue lekurik, ezta?**

Hilerria nahiko genuke. Orain arte ez dugu eskatu, baina eskatuko dugu, ea zorterik dugun. Asegurua izanez gero, urteroko kuota ordainduta, hiltzean jaioterrira eramaten dute hildakoa, gure kasuan Marokora. Asegururik ez duena, berriz, meskitarik meskita joaten da eta diruz laguntzen zaio, gorpua jaioterrira bidal dezaten. Bestela, asegururik ez duen hildakoa Burgosera eramaten dugu, han dagoelako musulmandarrendako egokitutako hilerria, baina hemen lurperatzea litzateke onena. Hildakoaren senideak hura bisitatzerara joan ohi dira hilerria. Bisita horrek akordatu eragiten ditu

heriotza badagoela, denoi tokatuko zaigula. Heriotza presente egiten zaio pertsonari.

## **Zelan jakinarazten duzue komunitateko pertsona bat hil dela?**

Whatsappeko taldeak erabiltzen ditugu. Guztiak daude taldean sartuta. Eta tokian tokiko presidenteei inguruko komunitateei jakinarazten diete. Soraluzeko taldera edozeinek bidal dezake nahi



Abdelaziz Moujane Zubi Nagusian.

duena, eta Eibarren eta Elgoibarren ere bai. Nik dut kanpoko elkarrekin haremana. Hildako baten berri eman nahi dugunean talde guztietara bidaltzen dugu.

## **Orain meskita berria egokitzten ari zarete, ezta?**

Bai, dena gu egiten ari gara. Pladurra ipitzen dakienak hori ipintzen du, soldatzen duenak soldatu... bakoitzak duen ofizioarekin laguntzen du.

"ASEGURUA IZANEZ GERO, HILDAKOA JAIOTERRIRA BIDALTZEN DA, GURE KASUAN MAROKORA"

## **Pozik meskita berriarekin?**

Bai. Industrialdera egunero joan-etorria egitea asko da. Kotxez joanez gero, bueltan ez dago aparkalekurik. Eta eguraldi txarra bada okerrago. Bildotsaren Egunerako bukatuko dugu, bi hilabete barrurako, espero. Inaugurazio festa egingo dugu guztientzat. Horregatik ez dugu eskatu baimenik Ramadanaren amaiera-jaiak egiteko, nahiago dugu

Bildotsaren festa egin eta bide publikoa behin bakarrik okupatu.

## **Zerbait gehiago duzue faltan?**

Bildotsaren Egunerako bildotsak hiltzeko hiltegi txikitxo bat beharko genuke. Guretzat sakratua da hori eta orain ez dugu non egin. Ezkutuan ibiltzen gara bildotsak hiltzen eta arazoak izaten ditugu, non egin asmatu ezinda. Gainera, harrapatuz gero, isunak ipintzen dituzte. Hobe izango litzateke dena legez egitea, profesionalekin. Soraluzen bakarrik egun horretarako beharko genuke hiltzea. Etxe bakoitzeko bildots bat hiltzen du (ahal duenak). Soraluzen ehun baino gehiago.



Argazkioinaxxx. ARGAZKIJABEAXXX

# "12 urtetik gorakoek pilotan jarraitzea dugu helburu"

**AITOR ATXOTEGI** SORALUZECO PILOTA ELKARTEKO ARDURADUNA

**TESTUA:** ANDER GOMEZ

Betidanik izan da Soraluzeke Pilota Elkartearen parte Aitor Atxotegi Goenaga (Soraluze, 1988): Eskolan txikitatik hasia, gerora entrenatzaile izan da eta elkarteko buru da gaur egun.

**Zeintzuk osatzen duzue elkartea?**

37 ume dauzkagu infantil mailara bitartean; hortik gora, bi ditugu jubeniletan, paletako hiru eta lau pilotari gaude nagusi mailan.

**eta zeintzuk zaudete antolakuntzan?**

Zuzendaritza formalik ez daukagu. Nik egiten ditut arduradun lanak, eta entrenatzaile-begirale lanetan Eki Amuategi, Mikel Gallastegi, Ibai Kortabarria, Iker Urkiri eta ni neu aritzen gara.

Horretaz aparte, laguntza puntualak ere baditugu: Guraso batzuk laguntzeko prest egoten

dira, batez ere euren seme-alabek jokatzeko; eta palakoek epaile eta markagailuko lanak egin ohi dituzte.

**Ohorezko mailako txapeldun izan dira nagusiak, infantilak Gipuzkoan ere... emaitza bikainak lortu dituzue azkenaldian.**



Soraluzeko Pilota Eskolako haurrak.

Aurten Ohorezko mailan ibili gara Gipuzkoan eta Euskal Ligan. Zortzi elkartek dute bakarrik plaza eta hortxe gaude gu (nabarmenezkoa, Euskal Ligan nafar elkartek ere sartzen direlako). Murua eta Mendizabal txandaka ibili dira, Manex Balerdi atzelari, eta txapeldun suertatu dira, bai. Talderik indartsuenetako bat daukagu nagusien afizionatu mailan.

Bestalde, palakoek Gipuzkoako bigarren mailan jokatu eta bigarren sailkatzea lortu zuten. Baina ezin izan zuten lehenengo mailarako promozio fasea jokatu, ea hurrengo urtean posible den.

Errendimendu mailan, txapela lortu zuten Zuhaitzek eta Aitzek. Oinatz, Peio eta Unax infantilek ere lortu zuten Gipuzkoa mendebaldeko





Murua eta Balerdi Ohorezko mailako txapelkun. E.E.P.F.

txapelketa irabaztea. Garbi dago maila badaukagula eta bide onetik goazela.

Eskolarretan ume dezente dauzkagu, batez ere benjaminetan eta alebinetan. Debarroan jokatzeko dute eta maila ona ematen dute, baina halaxe izan da betidanik, seigarren mailaraino oso pilota eskola indartsua izan dugu beti.

**Gerora aldatu egiten da hori, ala?**  
Bai, normalean beherakada handia izaten dute klubek 12-13 urtekoei "erabakitze momentua" heltzen zaienean. Kontua da materiala aldatu egiten dela (pilota bigunarekin jokatzetik gogorrera pasatzen da) eta talde kirolek indar handia dutela. Gurea bakarkako kirola izanik, eta eskuko minak tarteko... askok utzi egiten dute. Horiek mantentzea dugu erronka eta helburu.

**Zein da talde kirolen gakoia, pilotarekin alderatuta?**

Ba, esaterako, ez da gozoa Gipuzkoako beste puntara joan, partida galtzea tokatu eta buelta zeuk bakarrik egitea. Zentzu horretan, talde kirolak "errazagoak" dira: porrota eramangarriago da hamapiku laguneko aldagela batean, bakarrik baino...

**Hala ere, aurretik aipatutako lorpenak lana ondo egiten ari zaretzen seinale dira. Zeintzuk dira eskolaren indarguneak?**

Urte askoan pilotak bere lekua hartuta daukala, bere egunak (asteazken-ostiral). Umeek gaur egun dituzten estraeskolar guztiak kontuan hartuta, positiboak da jendeak ordu horiek errespetatzea-edo, eta gustura etortzen direla ikustea. Horrez gain, begiraleak aipatuko nituzke, gazteak direla eta gogotsu dabilta.

**...eta kontrari, zer falta zaio?**

Konpromisoa hartzeko jendea botatzen dut faltan nik. Irailtik ekainera begiraleak lotzeko zailtasunak egoten dira eta ni bakarrik nago. Horrela gabilta urte askoan eta ez nago gaizki, baina laguntza apur bat eskertuko nuke... denontzako errazago izateko.

Bestalde, atzera begira, kiroldegian zegoen tabernak asko laguntzen zuela uste dut. Gainera, nagusi mailako pilotariak (Laskurain, Muguruza, Arrieta, Erlei, Garcia, Jauregi...) entrenatzen zuten. Bi faktore horiek jende asko erakartzen zuten.

**Zailtasunak tarteko, garbi dago Soraluzeko kluba erreferente dela**

**eta zuei esker inguruko herrietako gazte askok pilotan jokatu ahal dutela.**

Bai, bailara osoko jendea dator: Bergararik neska bat, Elgoibartik beste bat, Debatik bi mutil, Lasturretik beste bi... eta nagusien mailan Arrasateko bat eta Antzuolako bi daude.

**Konplikazioak dakartza horrek? edo mesedegarri ikusten duzu?**

Nik uste ona dela, hemengoei hobetzen laguntzen diela.

Betiko gelako lagunetz aparte, kanpotik datorren pilotari bat alboan edukitzeak (normalean gogotsu datorrena) motibazio puntu bat gehiago ematen die. **Kalean entzuten da pilotarako grina berpizten ari dela gazteenetik hasita. Hala da?**

Gazteak badaude, bai, orain dela 15-20 urterekin alderatuta, askoz gehiago. Lehen nafarrak ziren nagusi, baina azken hamar urteetan tendentzia asko aldatu da. Gipuzkoan, harrobia ondo lantzen ari garela uste dut eta horren fruitu dira lehen mailan dabiltzan pilotariak: Altuna, Artola, Jaka, Rezusta, Imaz, Albisu...

**Zer esango zenieke plazentziatarrei?**

Gerturatzerara animatuko nituzke, polita dela herriko pilotariak pilotan ikustea.

Bestalde, haurrei apuntatzeko gonbitea luzatzen diegu, nesketan azpimarra jarritz: Hiru infantil dauzkagu (gazteena DBH1en) eta horien azpitik ez dator inor. Niri pertsonalki ilusio berezia egingo lidake neskak jokatzeko ikusteak eta, behintzat, jakin dezatela eurentzako tokia ere badagoela, nola ez. Asteazken eta ostiraletan elkartzen gara kiroldegiko frontoian eta konpromiso barik etorri ahal dira probatzera.

# "Oso zortedunak gara munduaren alde horretan jaio izanagatik"

LORE GALLASTEGI TORNOS SORALUZETIK MUNDURA



---

## UBANE MADERA

ARGAZKIAK: LORE GALLASTEGI

---

Lore Gallastegi Tornos, (Soraluze, 1991). 2018tik Australian bizi da, baina bizitoki duen enegarren lekua da hura, bidaiari amorratua baita. Aurreko udan bisitatu zuen azkenekoz Soraluze.

### **Kontatu duzu zenbat lekutan izan zaren?**

Ez. Leku askotan izan naiz eta beste askotan ez naiz egon... oraindik, jajaja.

### **Zein izan zen bisitatu zenuen lehen lekua eta zein azkena?**

Lehen bidaiaria Indiara eta Nepalera izan zen eta azkena, berriz, Euskal Herrira, bisitan.

### **Orain Australian bizi zara. Noiz arte?**

Far North Queensland-en bizi naiz, Koralezko Hesi Handiaren eta munduko oihan zaharrenaren (Daintree)

ondoan. Orain mendebaldeko kostan nago, Margaret River izeneko herritxo batean.

Australian leku guztiek dituzte bi izen, bertako aborigenek ipinitako izen originalak eta gero jende zuriak ipinitakoak. Lur honek Wadandi Boodja dauka izen originala eta "ur gaziko jendearen lurraldea" esan nahi du. 2018tik nago hemen eta laster joango naiz.

### **Beste soraluzetarren bat ere bizi da Australian, egon zara eurekin?**

Ez, Australia Europa baino handiagoa da tamainaz eta urruti bizi gara, baina egiten dugu berba noizean behin ea dana ondo doan jakiteko.

### **Zein da inpresiorik handiena eragin dizun lekua? Errepikatu duzu leku hori?**

Indonesian oso pozik bizi izan nintzen. Jendea oso polita da eta bizitza hartzeko duten era ere bai, irribarrez, daukatena elkarbanatzen, kantuan. 18.000 irlaz osatutako herrialde bat da eta etnia eta hizkuntza pila bat bizi dira batera, arbasoen biziera, ohitura eta kultura zaharrak mantentzen. Hiru aldiz egon naiz. Iranen jendearen harrera munduan topatu dudan onenatarikoa izan zen eta inpresio handia egin zidan, baita bertako gazteriak, oso kultuak eta interesgarriak, lagunekin elkartu eta Hafez bertako poeta famatuaren poesia irakurtzen topatzen nituen. Ladakh eta Katxemirako paisaiak eta bizitzak ere aho zabalik utzi ninduten, bueltatuko nintzateke.

### **Eta zein da berriro ere bisitatuko ez zenukeen leku hori?**

Ez dakit halakorik daukaten. Nahiz eta lekuak berdinak izan, jendea eta egoerak beti dira desberdinak, orduan, bueltatuz gero esperientzia desberdina izango zen. Baina zerbait esatearren Singapur. Hiri handietan ibiltzea ez zait asko gustatzen.

### **Zein da nahi bai baina oraingoz bisitatzea lortu ez duzun leku hori?**

Antzinatik asko aldatu gabe konterbatzen diren lekuak eta herri indigenak nahi ditut bisitatu, aldatu aurretik. Papua Ginea Berria (arriskutsua izan daiteke), Tibet (ez dute libreki bidaiatzen uzten), Amazonas, Japonia, Afrikara ez naiz heldu oraindik... Uf bihar arte egon naiteke kontatzen.

### **Zein lekutara ez zinateke joango?**

Turistaz betetako edozein lekutara.

### **Horrenbeste leku/jende ezagututa, anekdota ugari pasatuko zitzaizun; adibide bat?**

Vietnamgo mendietan nenbilen, Red Dao izeneko etnia minoritario bat ezagutzeko asmoz. Argazki batzuetan ikusita neuzkan bertako emakumeen arropa bereziak, batzuetan 2 urte behar izaten dituzte traje bat sortzeko. Motorrean bidaiatzen



## NONDIK NORA?

Lore Gallastegi Karakorum mendizerra atzean duela, munduko bigarren mendizerra altuena. Katxemiran, Pakistan, Txina eta Indiarekin mugan.

Urrezko tenpluaren zaindariatako bat Amritsarren, Punjab, India.

nenbilen eta edateko ura gastatu zitzaidan, etxe batera hurbildu nintzen eta han zeuden andre bazkaltzera gonbidatu ninduten. Etxean sartu eta Red Dao gizonak ezagutu nituen, euskaldun txapelarekin buruan! Ai ama, zelako sorpresa polita eta barregarria mendi haietan galduta txapela topatzea. Interneten sartu eta euskal baserritarren argazkiak erakutsi nizkien txapela buruan, eta barre egin zuten eurek ere bai. *Igual hortik etorriko da txapela buruan eta ibili munduan.*

**Noiz hasi zinen bidaiatzen?**

**Bakarrik bidaiatzen duzu beti?**

Duela 13 urte, 20 urterekin. Unibertsitateko praktikak munduko beste lekuren baten egiteko aukera eman ziguten eta Indiarra joan ginen lagun bat eta ni, moja batzuekin bizitzera slum baten erdira (fabela moduko bat). Bidaia hori bizitza aldatzen duten

Goian, Indiarra lehen bidaia, Pushkar herrian, Rajastaneko probintzian, bertako ijitoekin.

Eskuman, Indiako desertuko aurpegi berezi batzuk.





Ilarako argazkietan vietnandarrak eguneroko zereginetan; ezkerrean, herriko plazan andrak artoa txikitzeko tresnekin eta gong batzuekin musika egiten arratsalde pasa. Erdian, egurra garraiatzen eta eskuman odolosteak egiten eta ortuan animaliekin lanean.



horietakoa izan zen. Normalean, bakarrik bidaiatzen dut.

### **Zelan moldatzen zara bidaiatzeaz bat bizirauteko?**

Lan asko eta baldintza onak dauden lekuetara joaten naiz lanera, eta bidaiatzen dudana lekuetan gutxierekin bizi daiteke simple bidaiatzen, bertakoek jaten duten lekuan jaten eta lotan, garraio publikoan mugitzen...

### **Zenbat lanbide izan dituzu? Osasun aldetik inoiz ez duzu sustorik izan?**

Lan asko egin ditut. Gaur andre bati bere lurretan lan batzuk egiten laguntzera joan naiz eta kanguruei gosaria eskutik ematea tokatu zait. Osasuna ona daukat, baina batzuetan tokatzen da zerbait eta hori da

bakarrik bidaiatzearen momentu txarretako bat. Beti aseguru medikuarekin joaten naiz. Leku etako bizilagunek beti eskuzabalik eta atea zabalik jaso naute. Askotan ezin gara hitzez ulertu baina hori ez da barrera momentu politak konpartitzeko. Ez dakit zenbat etxetako sukaldetan eseri naizen komunikatu ezin nintzen jendearekin jatera edo patata tortilla batzuk kozinatzen.

### **Zer ematen dizu bidaiatzeak?**

Poliki bidaiatzeak eta leku ezberdinetan bizitzeak beste bizi era batzuk ulertzeko aukera eta gure kulturaren erakutsi digutena perspektiba handiago batetik ikusteko aukera ematen dit. Egunerokotasunean ikasten

nagoela sentitzen dut.

Aintzakotzat hartzen ditugun gauza horiek baloratzen laguntzen du, oso zortedunak gara munduaren alde horretan jaio izanagatik. Lagun onak eman dizkit leku askotan, eta planeta hau zein ederra den ikusteko aukera. Batzuetan ezin dut sinistu ikusten ditudan lekuak zelakoak diren.

### **Zelan ikusten gaituzte euskaldunak kanpotik begiratuta?**

Gehienak harrituta gelditzen dira Euskal Herriari buruz jakitean, ez dakite leku hau existitzen denik. Momentu polita izaten da zein garen azaltzea. Ezagutzen gaituztenek maite gaituztela esango nuke, euskaldunak, gure lurra eta batez ere, janaria.



◀ Ezkerreko argazkian Red Dao gizonak, euskal txapelekin. Ondoan, Red Dao etniako emakume bat puntuz puntu traje berri bat josten.

► Eskumako lehen argazkian uraren gainean flotatzen dauden herriak, Kanbodian eta bigarrean, Galungan ospakizunaren zeremoniarako eskaintzak prestatzen, Balin.



▲ Goiko argazkian, munduko sukalderik handiena. Urrezko tenpluaren barruan dago, Sikh erlijioaren etxean, Amritsarren. Urte osoan dago zabalik, bazkaria, gosaria eta afaria ematen dituzte eta boluntarioei esker funtzionatzen du, 50.000 persona ingururi jaten emanaz egunero. Gero, harrikoa egitera joan zaitezke, eskerrak emateko.

► Ondoko argazkian Lore Gallastegi kontzentratuta dantzako pausak ikasten, urte berria ospatzen Floresko irlan.



ZORION AGURRAK



**Aitor Agirre Aizpitarte**  
Apirilaren 27an 11 urte. Zorionak Aitor!!!



**Maria Jesus Arrizabalaga Elorza**  
Apirilaren 17an 79 urte. Zorionak amama!!!



**Ekain Larrañaga Agirre**  
Apirilaren 21ean 20 urte. Zorionak Ekain!!!




**Ioritz Aizpitarte Aranguren**  
Apirilaren 2an 41 urte. Zorionak Ioritz!!!



**Enaitz Quilez**  
Apirilaren 27an 8 urte. Zorionak Enaitz!



**Leire Laskurain**  
Apirilaren 22an 5 urte. Zorionak polixori. Etxekoak.



**Joanes Borinaga Lekue**  
Apirilaren 12an 3 urte. Zorionak Joanes! besarkada haundi bat etxekoan partez!



**Telmo Durán Lamariano**  
Apirilaren 10ean 2 urte. Zorionak artista! Asko maitxe zaitzugu! Familixa guztian partez.



**Elene Atxotegi Arruabarrena**  
Apirilaren 9an urte bat. Zorionak polixori! Segi gure bizitzak alaitzen. Asko maitxe zaitzugu!



**Sugo Zubizarreta Revuelta**  
Apirilaren 11an 11 urte. Zorionak maitxia! Asko maitxe zaitzugu. Segi gure bizitzak astintzen.

OHARRAK

**1989an jaiotakoek bazkaria**

1989an jaiotakoek bazkaria egingo dute Txurrukan maiatzaren 18an. Sorraluzen bizi izan den edo bizi den edonor gonbidatuta dago ospakizunera. Izena emateko: 649 22 80 40 (Mikel).

**Danborradan izena emateko aukera**

Nagusien Danborradarako izena hemen eman daiteke: Gila, Txurritxu, Edurtza, Ufala, Casa del Pueblo, Txoko, Bolia, Arrano, Intxixu Pub, Itxaropena, Iratxo, Iñarra, Autoservicio Amparo, Okelia, Vidal, Criadon, Benanen denda, Mendizabal okindegia, Todo a Cien eta Mimar.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

**Hildakoak**

Jose Esteban Bollar Txurruka  
Antonio Bouzas Delgado  
Jacinto Hernandez Lanz  
Ana Maria Nuñez Fariñas  
Victoria Revuelta Alvarez  
Juan Inazio Laskurain Aranberri



**Jaiotakoak**

Markel Arana Lobato

JAIOBERRIAK




**Markel Arana Lobato**  
Apirilaren 15ean jaiotzen.

 <p>Creando Valor de Colaboración de colaboradores de RR.LL. Realizando Pólizas, Administraciones Sociales, Bienes, etc.</p>  <p><b>ROSA M<sup>a</sup> PINTADO</b></p> <p>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzen- bidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p>Gure komunitatean, kuota komunitarioen kopuru handi bat zor duen etxe-jabe bat dago. Pertsona horren etxebizitza hipotekatuta dago, eta jakin nahi nuke ordaindu gabeko kuotak erreklamatzeko aukerarik dagoen.</p> <p>Ordaindu gabeko kuotei dagozkien gastu orokorrak ordaintzen laguntzeko betebeharrak erortzen dira eta komunitatearen aldeko kredituak lehentasunezkoak dira. Hala ere, tamalez, lehentasun hori ez da modu automatikoan aplikatzen. Aplikatu ahal izateko, kredituaren izaera pribilegiatua agerrarazi behar da, jabea ordainketa egitera eta Jabetza Erregistroan jasotzera behartzen duen epaia emanaz. Horretarako, prozedura judicial bat egin behar da, eta bertan parte hartzera deitu egin behar dira erregistroan jasota dauden hipoteka-zordun guztiak.</p> <p>Ordinaria: jabetzak hipotekatuta dituzten jabe zordunei ordaindu gabeko kuotak erreklamatzeko prozeduran, beharrezkoa da enbargoa jasotzea Jabetza Erregistroan eta aurretik inskribatutako hipoteken edo enbargoen aurrean lehentasunezkoa dela adieraztea. Prozeduran parte hartzen duen profesionalak horien titular guztiei eman beharko die auziaren berri, alegia, ordaindu gabeko kuotak erreklamatzeko prozeduran parte hartu duten guztiak.</p> <p><b>GOAR</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---

ESKELAK

ESKELA

**Joxe  
Bollar Txurruka**



2024ko martxoaren 30ean hil zen, 71 urte zituela.

Pertsona umilla, esku-zabala, umoretsua, lagunen lagun,  
gertukua, danon zaindari...  
Izan zaralako, izan zaran modokua,  
Horregaitxik maitzeko zaitxugu aitxa/Joxe.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, modu batean edo bestean  
gure ondoan egon zareten guztioi.

Etxekoak.

ESKELA

**Ana Mari  
Núñez Fariñas**



2024ko apirilaren 10ean hil zen, 86 urte zituela.

Etxea oparo egin zenuen, lurra bezain oparo.

Gure lurra, zure lurra. Eskuzabal, maitasuna ordain. Na  
casa, na terra, sempre con nós.

Familia.

ESKELA

**Alicia  
Larrañaga Fernández**



2024ko apirilaren 18an hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna  
adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Familia.

ESKELA

**Juan Inazio  
Laskurain  
Aranberri**



'Osuma'

2024ko apirilaren 24an hil zen, 75 urte zituela.

Eskerrik asko San Andresko auzoari, elkarteari eta  
guri eman diguzun guztiagatik.

San Andresko lagunak.



**bertako**  
igogailuak | ascensores

**IGOGAILUEN  
MANTENTZE-LANEN  
ESKAITZA  
ZORROTZENA**


**BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA**  
**100€-tik/hileko**

+2.000 bezerok gugan  
dute konfiantza

943 903 450  
bertako.es

# AURREMATRIKULA MAIATZAREN 6tik 24ra

  
IKASTETXE PUBLIKO  
DOAKOIA



UNI  
EIBAR  
ERMUA



F



EGOKITZAPEN FISIKOA

GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA

M



NAZIOARTEKO MERKATARITZA

GARRAIO ETA LOGISTIKA

MERKATARITZA JARDUERAK

A



ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

+ Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arratsaldez.

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA

I



SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA

WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA

SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA

GOI MAILAKO ZIKLOAK

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA  
INFORMAZIOAREN  
TEKNOLOGIEN  
INGURUNEETAN

[www.uni.eus](http://www.uni.eus)

Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | [idazkaritza@uni.eus](mailto:idazkaritza@uni.eus) | [@uni.eus](https://www.facebook.com/uni.eus) [f](https://www.instagram.com/uni.eus) [i](https://www.instagram.com/uni.eus)



GIPUZKOA  
BERTSOTAN

24

2. FASEA

# SORALUZE

Ekainak 2, igandea, 17:00

Herri Antzokia



Antolatzailea:



Laguntzailea:

[plentzia.eus](http://plentzia.eus)

[www.bertsotale.eus](http://www.bertsotale.eus)  
[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)